

HARAN ATLANTIKOAK

GIPUZKOA G.11 Arno



Arno mendiek kostaldetik oso hurbil, Mutriku eta Deba artean, zabaltzen den harkaitz-arku bat osatzen dute. Altuera txikiko mendigune bat da, baina inguruko mendietatik bereizten duen profil berezia du; hori dela eta, bere tontorra "Bandera (ikurrina)" izenez ezagutzen da, hemendik seinaleak bidaltzen baitzitzaizkien kostaldetik hurbil zeuden ontziei.

Kareharrizko mendi-egalek garaiera handiak dituzte, eta artadi kantauriarrek estaltzen ditu guztiz; hain zuzen, inguru epeletako bereizgarri den baso honek iparraldeko eremuaren zati handi bat estaltzen zuen glaziazioen aurretik. Ornodun-espezie askok aprobetxatzen dituzte baso hauetako babeseta eta elikagaiak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, eskualdeen mugak.
- Paisaia karstikoaren adibide bat: Olatzeko poljea.
- Artadi kantauriarreko flora eta fauna: baso honek lurra mantentzeko duen garrantzia.
- Basurdea: (ezaugarriak, azturak), ugaritu izanaren arazoak, sortutako arazoak, izan daitezkeen irtenbideak.
- Erabilera tradizionalak Arnon: artadia eta ikazkintza.
- Benetako betizuak: inguruko abeltzaintza tradizionala. Euskal Herriko arraza autoktonoak.
- Ekosistemak dituen arriskuak: suteak, neurririk gabeko artzaintza, baso-sailak.
- Ondarea: Mutriku eta Deba, historia, ondarea, arrantza-tradizioa.